



## EAE-ANVK lortu ditu bi eskualdeetan boto gehien

### TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Abstentzia oso altua izan da, herri askotan %40a gaindituz

**OSAKETA ▶** Bost herritan gehiengo osoa duen arren, EAEk ezingo du gobernatu, ilegalizazioa dela eta ▶ 25

### ZIZURKIL ▶

**Gaur 'Apaizac obeto' bertso emanaldia**

Jon Maiak zuzentzen du; 20:00etan izango da Kultur Etxean ▶ 7

### ALEGIA ▶



N. GARZIA

**'Ahots bidaztiak' olerkia eta musikarekin**

Ostiralean 22:00etan Kultur Etxean ▶ 7

**BIHAR EZ DA HITZA-RIK IZANGO**

Udal eta Foru hauteskundeetako emaitzak plaza-ratu ahal izateko, HITZAK igandean lan egin eta zenbaki berezia argitaratu zuen atzo.

Hori dela eta, bihar ez da HITZARIK argitaratuko. Etzi izango gara berriz zuekin.



## Euriak busti du jaiaren amaiera Izaskunen

**IBARRA ▶** Atzokoarekin amaitu ziren aurtengo Izaskungo jaiak. Euria izan da protagonista nagusia eta egunero busti ditu egitarauaren ekitaldiak. Hala ere, giro bikaina izan da Izaskunen eta denetarik ikusteko aukera izan da bertan. Atzo Alurr dantza

taldeko umeek emanaldia eskaini zuten, baina karpa barnean egin behar izan zuten, euria zela eta. Ondoren, merienda eta bertsolarien saioa izan zen eta, amaitzeko, erromeriak itxi zuen aurtengo festen azken eguna. A. IMAZ ▶ 6

**ceinpro**  
Diseinuan eta kreazioan halmenean  
oinarritutako heziketa

• DISEINU ETA PRODUKZIO EDITORIALEAN GOI TEKNIKARIA  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
GOI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAILERENA - 2. ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA - LH1 - EE I - eta HSACI, BAZKILERGIA gaituz

• ARTE GRAFIKOEIEN AURREINPRIMAKETAN TEKNIKARIA  
ARTE GRAFIKOTAKO FAMILIA PROFESIONALEAN  
ERDI MAILAKO HEZKUNTZA ZIKLOA

IRAILERENA - 2. ikasturte / 2000 ordu  
SARRERA - 2. EBB - LH1 - EE I - eta OSI gaituz

Logo:

Herriz:

2008-09-01  
Tolosa  
Tel: 943 65 875  
Fax: 943 65 876

**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua

**Goimailako zikloak: Euskaraz**

- Mekanizazio Bidezko Produktzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemen Administrazioa

**IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:**  
Ekainaren 1etik 7ra

**Zure etorkizuna ziurtatzen dugu**

Tel.: 943 65 11 47 • 943 65 06 64  
[izazkaritza@tolosaldea.com](mailto:izazkaritza@tolosaldea.com) • [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)



TOLOSA ▶

# Pozerako zein gogoetarako emaitzak

Emitzen arabera, ospakizuna edo hausnarketa izan zuten alderdiek

IÑIGO TERRADILLOS

Batzuk alai, beste batzuk gustura, eta besteak hausnarketa egiteko unea dela esanez. Hauteskundeen emaitzak jakin bezain pronto alderdiek hartutako jarrerak dira. Hori bai, beti gertatu ohi denez, irabazten dutenak gustura azaltzen dira euren emaitzak izugarriak izan direla esanez, eta emaitza hain onak lortu ez dituztenak, berriaz, ez dute esan nahi izaten galdu egin dutela, eta emaitzak ere hauntzat onak izaten dira. Azken batean, beraien hitzak kontuan hartzen baditugu denak izaten direla garaile. Datuak begiratzea, beraz, hobereana, bakoitzak bere ondoriak ateratze aldera.

Tolosako Batzokian bildu ziren jeltzaleak iluntze partean eta han izan ziren emaitzak jakin arte. Villabonaren kasuan ez bezala, Tolosan izandako abstentzio handiak mesede egin ziola EAJri esan daiteke, orain lau urteko datuak mantentzeaz gain, zinegotzi bat gehiago izango baitu hurrengo legealdian. Beraz, orain arte 8 zinegotzi bazituen, aurrerantzean 9 izango ditu, hau da,

gehiengo osoa. Hau jakinda «gustura» azaldu ziren bai alkategaia, bai eta zerrendakideak ere.

Bestalde, EAEk emandako datuen arabera, 1.978 bozka lortu zituzten. Kopuru hori aintzat hartuta, 4 zinegotzi behariko litzukete udalean. Intxurren bildu ziren Antton Izagirre alkategaia eta gainerako alderdikideak, eta «pozik» zeuden izandako erantzunarekin; gainerako alderdikideekin bildu eta Udalean izatea exijituko dutela azaldu zuten.

EARI dagokionez, 988 boto lortu zituen, eta 4tik 3 zinegotzi izatera pasatuko da. Alkartean bildu ziren hautagaia, eta gogoetarako unea zela etalanean jarraitzeko nahia azaldu zuten. EB-Aralar koalizioak lortutako 704 bozkekin 2 zinegotzi izango ditu, PSE-EEK 746 boto eta 2 zinegotzi eta azkenik, PPK 577 boto eta zinegotzi bakarra.

Orain ekainaren 16ra arte itxarotea besterik ez da gertatzen, herritarrentzat behintzat. Izan ere, ordura arte, hainbat bilera egin behariko dituzte alderdietako kideek, udal gobernu osatu asmoz.




Batzokian «ospatzeko moduko emaitzak» jaso zituzten jeltzaleak. I. TERRADILLOS




Intxurren bildu ziren EAE-ANVko kideak. «Emaitza oso onak jaso ditugu», azaldu zuten. I. TERRADILLOS

## 2003ko hautetsiak



**Tolosa Bizirik**  
5 zinegotzi  
izango litzuke  
beraien datuen  
arabera

## 2007ko hautetsiak



**EAE-ANVek**  
4 zinegotzi  
izango litzuke  
beraien datuen  
arabera



Alkartean izan ziren EAKo kideak. Euren alderdia bozkatu zuten herritarrak eskertu zituzten. I. T.



## ZEHAZTAPENAK ▶

Atzoko HITZA egunkarian argitaratutako informazioaren zenbait zehaztapen ageri dira hemen:

**Asteasu.** EAE-ANV alderdia ilegalizatua izan zen, baina honek 303 boto jaso zituen. Emaitza ofizialak kontuan hartuta Bai Asteasuri plataformak bederatziz zinegotzi lortu ditu.

**Ibarra.** EAE-ANVko hautetsiei dagokionez zenbait akats zeuden: Hanot Karrerak 25 urte ditu eta elektrizista da. Ederne Urdanpilletak 30 urte ditu eta irakaslea da, eta Iban Galarragak 32 urte ditu eta informatika teknikaria da.

**Villabona.** Atzoko egunkarian, PSE-EEko zinegotzia den Joseba Iñaki Uriberen eta Ezker Batua-Aralarko Maria Jose sanchezen argazkiak aldatuta zeuden. Bestalde EAE-ANV-k sei zinegotzi lortu ditu, eta ez zortzi. **Lizartza.** PPK botoen %8a jaso du; EAE-ANV-k %51a eta boto txuriak %39 izan ziren.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdia. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzio klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdia)

- ▶ **DYA:** 672536
- ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

### Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### Bestarik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrarrendi egotiza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

## TOLOSALDEKO DATUAK ▶

28 HERRIAK 2007 (2003)	EAJ (2003) <sup>1</sup> 5.220 (9.242)	EA <sup>1</sup> 1.966 (7.996)	EAE-ANV 7.211 (7.743) <sup>1</sup>	EB-Aralar <sup>3</sup> 1.293 (1.401)	PSE-EE 1.526 (1.002)	PP 1.002(1.707)	Gainerakoak 61 (78)
---------------------------	--	----------------------------------	---------------------------------------	---	-------------------------	--------------------	------------------------

## LEITZALDEKO DATUAK ▶

LEITZA ARESO <sup>4</sup>	EAE-ANV (2003) <sup>2</sup> 851 (533)	EA 417 (284)	Aralar 138 (485)	UPN 309 (497)	Areso Eraikiz -	CDN -	Gainerakoak 61 (78)
------------------------------	--	-----------------	---------------------	------------------	--------------------	----------	------------------------

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO DATUAK ▶

30 HERRIAK 2007 (2003)	EAJ (2003) <sup>1</sup> 5.220 (9.242) <sup>1</sup>	EA 2.383 (8.280) <sup>1</sup>	EAE-ANV <sup>2</sup> 8.062 (8.276)	EB-Aralar <sup>3</sup> 1.293 (1.886)	PSE-EE 1.526 (1.002)	PP 1.311(2.104)	Gainerakoak 61 (177)
---------------------------	---	----------------------------------	---------------------------------------	---	-------------------------	--------------------	-------------------------

<sup>1</sup> Boto kopuruaren ondoren parentesi artean ageri den zenbakia alderdi bakoitzak aurreko legealdian lortutako boto kopurua da. ▶ **1.** 2003an EAJ eta EA koalizioan aurkeztu ziren. 2003an bien artean lortutako emaitzak ageri dira parentesi artean. Dena den, datuen artean desberdintasunak daude. Tolosan, banatuta aurkeztu baitziren bi alderdiak, eta Leitza EA aurkeztu bazen ere, EAJ ez. **2.** 2003an EAE-ANV ez zen aurkeztu. Orduan herri plataformak lortutako emaitzak dira parentesi artekoak. **3.** EB-Berdeak eta Aralar ez ziren elkarrekin aurkeztu 2003an. Bien emaitzak gehituta ageri dira parentesi artean. **4.** Herri horretan EAE-ANVren zerrenda ballogabetua dago. **5.** 2003ko hauteskundeetan ez zen Areso Eraikiz plataforma aurkeztu, hori dela eta Batzarreko datuak dira parentesi artean daudenak. Bestalde, gainerakoetan artean ageri den datua Grupo Independiente Aresoarrarena da.

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO BALORAZIOA ▶

### ESTI EZEIZA

Hauteskunde bezpera hausnarketarako eguna bada, hurrengo, emaitzak aztertu eta gogoetak egitekoa da. Igandeko jardunaldiak baldintzatu eta ezaugarritu zituen ezaugarrietako bat abstentzio maila altua izan zen. Tolosaldean, orohar, %40ak ez zuen bozkatu, eta hau batzuen mesedera eta besteen kalterako izan zen.

2003an, Eusko Alderdi Jeltzalea eta Eusko Alkartasuna koalizioan aurkeztu ziren Tolosaldeko herrietan, Tolosan izan ezik. Leitza berriz, EA bakarrik aurkeztu zen, eta honek 284 bozka jaso zituen, aurtengoan baino 133 boto gutxiago. Beraz, bi alderdiak koalizioan aurkeztu ziren herrietako datuak kontuan hartuta, 6.017 lortu zituzten. Bestalde, Tolosan 3.225 bozka jaso zituen EAJk, aurtengo baino 22 gehiago. EAK, 1.979 bozka jaso zituen 2003an, aurtengo baino 991 gehiago.

Tolosaldeko nahiz Leitzaldeko emaitzak begiratu gero, nabarmen ikusten da EAE-ANV jaso dituela bozka gehien, 8.082 hain justu ere. Datu hauetan, kontuan hartzen dira ere ilegalizatua izan den herrietako botoak. PSE-EEk berriz, Gipuzkoan orokorrean gertatu den bezala, igoera izan du, eta duela lau urte baino 524 boto gehiago jaso ditu. Era berean, PPK, aurreko legealdiko hauteskundeetan baino 793 bozka gutxiago jaso ditu.

### EAE-ANVren bozkak

Aurreko lehenetan aipatu bezala EAE-ANV alderdiak jaso ditu bozka gehien eskualdean. Emaitzen arabera, gainontzeko alderdiek elkartzera erabakitzen ez badute behintzat, Aduña, Alegia, Anoeta, Ikaztegieta,

# EAE-ANVk alde handiarekin irabazi du bi eskualdeetan

Zenbaitetan gehiengo lortu arren ezingo dute gobernatu; hauteskunde ezaugarrietako bat abstentzioa izan da



Tolosa, herenegun, herritar bat bere bozka ematen. N. LATABURU

hauetan gainera, PPK lortu du alkatetza, EAE-ANV ilegalizatua izatean, alderdi honen zerrenda bakarrik geratu baita herri horietan.

Izurako kasua, berriz, berezia da; EAE-ANV legez kanpo utzi bazuten ere, aurkeztu diren gainontzeko alderdiek botoen %5a baino gutxiago lortu dute, aurreko lau urteetan alkatetza izan den Marimi Ugalde geratu da berriz alkatetza. Orendainen kasuan, nahiz eta ezker abertzalea legezkoa izan, honek ez du gehiengo lortu. Asteasu eta Tolosari dagokionean, EAE-ANV alderdi politikoa ilegalizatua izan zen. Hala ere, beraiek lutzatutako datuen arabera, legezkoa izan balitz ere, ez zuen herri hauetan alkatetza eskuratu.

Leitza, Villabona eta Belauntzan ziurtatua dute alkatetzaren jabetza. Gainera, lehendabiziko host herrietan gehiengo osoarekin gobernatuko du Eusko Abertzale Ekintzak.

Beste zenbait herritan, ezker abertzalekoek lutzatutako datuen arabera, hauteskunde hauetan Eusko Abertzale Ekintzak boto gehien jaso baditu ere, ilegalizatua izan denez, ezingo du Udal gobernu eskuratu. Horren adibide dira, Ibarra, Zizurkil, Leaburu, Elduain eta Lizartza. Azken bi



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



LEITZA >

# Alderdi guztiek igoera edo jaitsiera nabarmena izan dute

### EAEk alkatetza lortu du 6 zinegotzirekin, EAK zinegotzi bat gehiago atera du, UPNK 3 galdu ditu eta Aralarrek, guztiak

ERREDAKZIOA

Leitzan 2007ko hauteskundeetan izandako emaitzen ondoren bi dira alibiste aspimarragarrienak: EAE-ANVren garaipena, alkatetza lortzeko gain 2003. urtean Larrain Herri Plazafornak 5 zinegotzi lortu zituen eta EAE-ANV 6 lortu ditu. Bestalde, Aralarrek bere negun lortutako emaitza esanguratsua izan da, 2003. urtean lortu zituen 4 zinegotziak galdu baitu, eta honekin batera baita alkatetza ere.



Kaxier Zabalo izango da Leitzako alkatea, 6. kidea.

behin EAE-ANVko zerrendakotzi zoriendu behar zaien lortu duten emaitzengatik. Balaiz gisa, EA nabarmen igo da eta UPNren jaitsiera ere azpimarratzeko nabe. Gure emaitza dagokienek, autokritika egin behar dugu, izan dabileko gaizki egindako gauzengatik horrelako emaitza lortu izana, baina nik urte hauetan ez dut hainbeste kezakir somatu kalean. Nire ustez zerrenda bera erabakiorra izan da, kanpoko jendea sartu dugu eta helburu fin korrik gabea.

UPNK, 2 zinegotzi

UPNK herrian behera egin du 2003. urtean 5 zinegotzi atera zituen eta igandean, 2 «Harrututa urte garbena izan da Aralarrek balere ez ateratze, Guk 5 gurenia eta 2 atera ditugu. 3 atera gurenia penintsaritzen nuen nik, lehenengo guri ilegalizatuta ezudenak eskatzen ziz-

kigutenak 2 ziren, guri tokatzen ez zitzaizkigunik. Baina zaila izan da, 4 urte oso atulak izan baitira, lana ikaragarri gutxi egin da», dio Silbestre Mari Zubiturrek. UPNren zinegotziak UPNren emaitza baloratu du «Gure emaitzak ez du batere inportu guri irabazi gurenia galditu egin gurenia, aurreko legegaldian 5 zinegotzi atera eta ez batziguin esportaroko balio izan du. Guk 300 boto emaliguru betri hor izaten ditugu, gudan asko sinisten dute, eta guk 300 horiek ere ikaragarri maite ditugu. Igandeko emaitzeekin «ikaragarri kontent» daudela gehitu du Zubiturrek.

«EAE-ANVk gehiengo osoa izan du eta hori ez da hain ona, niri gustatubito litzaidake izango balira 5 zinegotzi ANVrentzat, 3 eta 2 UPN eta EArentzat eta 1 Aralarrentzat. Nire ustez herriarentzat hori izango litzateke egokiena.

GIPUZKOA ETA NAFARROA >

## Nafarroan gehiengo osoa galdu du UPNK

### Gipuzkoan PSE-EE izan da ustekabea, gora egin baitu eta EAJk, berriz, behera

ERREDAKZIOA

Inkestetan aurreikusita zegoen bezala, Nafarroan UPN-CDNK gehiengo osoa galdu du bai foru parlamentuan eta bai hiriburuko Udalean ere. Igandeko hauteskundeak eta gero Nafarroa Bai bigarren indarra da bi erakunde haue- tan, PSNren aurretik. Gipuzkoan, berriz, ustekabea PSE-EEK eta EAJk eman dute: lehenengoak nabarmen egin du gora eta EAJk beherakada izan du. Halere, bai batzuk bai besteak batzar nagusietan ordezkaritza bera izango dute. Gipuzkoan mulan abstentzio aspimarragarria izan da (Ansoan eta Bizkaian bezala) ia %40 izan baita. Nafarroan, berriz, parte-hartzea %79etik gorakoa izan da gobernuaren lehiak sortutako eztabaida eta gero.



Bozka ematen, E. LIZASO

Aldaketak

Nafarroa Bai bigarren indarra den arren, gobernu alternatiboa osatzeko moduko emaitzak lortu ditu. Nafarroa Bai, PSN eta Ezker Batua elkartzu gero 26 eserleku dituzte, gehiengo osoa beraz, UPNK (22) eta CDNK (2) elkartzu gero 24 lortuko baituzte. UPNK ostera 132 859 bozka lortu ditu, Nafarroa Bai-ek 74.517 eta PSNK 70.300. Nafarroa Bai PSNK baino bozka gehiago lortu arren, bide lege- biltzarreko kopuru bera atera dute.

EAE-ANVren bozkek dagokienek, Nafarroan 17.000tik gorra lortu ditu. Boto baliogabeak ere kontutan hartuta, 2 aukiti lortuko lituzke EAE-ANV, PSNK, ordea, gora egin du Nafarroan, baina ez Gipuzkoan bezain nabarmen.

Gipuzkoan PSE-EEK eman

UDALAK >

IMANOL GARCIA

Udal hauteskunde haue- tan zenbait herritan al- daketak gertatu dira udalbatzek hartuko duten itur- rian, larraian nahuta azaltzen dira alkatetza alibideak izan dituzten edo izan ditzaizkeen herrien datuak.

LIZARTEA-ELDUAIN

Aldaketa bereiztena Lizar- zartzan eta Elduainen gertatu- ko da. Eskualdeko bi udalerr- ti hasek izango dira PP alde- riak bere historian zehar Gipuzko- an lortzen dituzten lehen bi al- katetzak. Elduainen kasua oso de- gajaria da, boto bakar baten bidez alkatetza eskuratuko baitu PPK. Bai herri batean bai bestean EAE-ANV lortu ditu boto gehien, ezker abertzaleak emandako datuen arabera. El- duainen zinegotzi guztiak esku- ratutako lituzkete eta Lizar- tza zuzen zinegotzietatik sei.

Maria Jose Usandizaga Gi- puzkoako PPK lehenaldikaria azaldu duenez, bi herrietako alkatetak hartuko ditu alder- diak. «Oraindik ez dugu eraba- ki nire jaongo detsa, azaldu du Usandizagak, «baina jaongo direnak eskual herriarirak izango dira eta sailatuko gara gipuzkoarrek izan daitezke, ja- kin badakigun arren zer no- lako zailtasunak ditugun horri gaitzakeko. Usandizagak ga- neratu zenez, «eskual politi- koaren itaioan izan da».

ANOKETA, IZAZTEGIETA, LEITZA, VILLABONIA

2003ko hauteskundeetan ze- rrendak ilegalizatuta izan on- doren eta ofizialki Udalean or- dezkaritzarak gabe egon osten, aurtengo hauteskundeetan ezker abertzaleak eskualdeko lau herritan irabazi egin du. Ansoan, Izaztegieta eta Lei- tzaan EAE-ANV alkatetza ziu- rra du, gehiengo osoa baitau- ka. Villabonan 6 zinegotzi lortu ditu eta guztira zazpi behar dira gehiengo osoa izateko. Ha- lere, orain zortzi urteko erre- plikatzen bada —ezker abert- zaleak gehiengo osoa ez izan

# Aldaketak alkatetzan

### Kontaktuen osten zenbait herritan aginduko duen alderdia aldatuko da; beste batzuetan, berriz, aldatetako izan daitezke



Lizarteko boto kontaktuan PPK ordekarik bezala aritu zena auzoan sartzen herririk ateratzeko, AISEN BAZ

arren alkatetza eskuratu zuten — alkatetza hartuko du berriz.

ALBIZTUR

Albizturko Herria izeneko hautes- te zerrendak hartuko du al- katetza. Hauteskunde haue- n ezberdintasuna aurrekoekin alderatu, oraingoan zerren- da itxi bat aurkeztu dela izan da. Aurreko hauteskundeetan herri batzar batean erabaki zen aurkeztu zen zerrenda.

ALZO

Batzarremuino plataformak lortu du alkatetza Alizon. Au- rreko legegaldian EAJk lortu zuten alkatetza, ezker abertza- lize ilegalizazioen ondorioz emi izan baitzen aurkeztu. Au- rtengo hauteskundeetan ere ez- ker abertzalearen plataforma, Altolanena, balogabetu egin dute Beraz, ofizialki Batzarre- muino eta EAJ aurkeztu ahal

AMEZKETA

Orain lau urte Ametzak pla- forma balogabetu egin zuten. Plataforma bultzatu zuten her- ritarrek aurtengo hauteskun- deetan Kimu Berririk platafor- ma osatu dute eta berriak lortu dituzte boto gehien. Bigarrena azken lau urteetan alkatetza izan duen Ametzatarok elkar- lanetan izan da. Hirugarren al- derdia EAE-ANV izan da. Kimu Berririk 3 zinegotzi lortu ditu eta beste hiek bina zinegotzi. Beraz, oraindik ez dago guzti- gartu zinezko izango duen alka- tetza, Kimu Berrik-ek ez baitu gehiengo osoa.

BELAUNTA

Azken lau urteotan Erroizpe plataformako Edoine Arbellegi izan da alkatea. EAJ-EAren ba-

besarokin. Bien artean lau zi- negotzi zituzten eta ezker abert- zalearen Belauntzako Sus- trairak plataformak hiru. Au- rtengo hauteskundeetan EAE-ANV lortu ditu boto gehien eta hiru zinegotzi esku- ratu ditu. Erroizpe plataforma Lagan Arsen herri plataforma bezala aurkeztu da auzten eta

bi zinegotzi lortu ditu berriz. Bestalde, Denok bat platafor- ma aurkeztu da eta honek ere bi zinegotzi izan ditu. Orain lau urtekoari begirituz gero, ikus- qui dago zer gertatuko den al- katetza erabaki behar den boz- ketan.

HERNIALDE

Azken hiru urtetan Udalik gabe izan da Hernialde. fun- tziontan zegoenak karguak di- mistioa eman ondoren. Beraz, aldateta nabaria izango da, lau urte hauetarako Udaltzara osatuko delako. Hernialdeko

### ALKATETZA ZIURTATUTA >

Herria	Izena
Aduna	Angelita Abuzua
Albizar	Ramon Lasa
Albia	Alto Soroitza
Alkiza	Jon Bolea
Alzo	José Ignacio Murua
Arantzeta	Pedro Pelagariño
Arca	Mikel Etxebarria
Arizaba	Unai Aranzabar
Berastegi	Alto Lizarrza
Berribe	Jon Aragoi
Bizkaia	Jon Ugarte
Ediñan	PKK zeharkatu du
Hernialde	Jago Balaia
Harzaleku	Kaxier Zabalo
Irura	PKK zeharkatu du
Leizua	José Martín Deustu
Lizartea	Kaxier Zabalo
Lizaso	PKK zeharkatu du
Onandain	Tomás Plazaola
Ormaiztegui	Unai Etxe
Tolosa	Jokin Biderbaitz

### ALKATETZA ZIURTATU GABE >

Herria	Izena
Abantobilla	Haztatu behar
Ameketa	Jesús Huerta
Balaran	Haztatu behar
Belauntza	Irigo Araso
Galdu	Haztatu behar
Izarra	Concepción Romo
Larrazul	Haztatu behar
Villabona	Manché Jereña
Zizurkil	Marian Laskano

Herritarrek zerrendak lortu ditu zinegotzi guztiak.

LEABURU

Aurreko hauteskundeetan ezker abertzalearen plataforma ilegalizatu ondoren EAJ-EAK lortu zituen ofizialki zinegotzi guztiak. Baina hauek ez zuten kargua hartu eta orain zortzi urte osatu zen Udalak funtzio- tan jarraitu zuen. Oraingoan ere EAE-ANV balogabetuta urte dute eta horrek ofizialki Bide Berririk plataformari eman ditziko zinegotzi guztiak. EAE-ANV baino boto guxti- go izan arren, ikusgai dago, be- raz, Bide Berririk plataformak zer erabaki hartuko duen.

**hitza** Harpidedunen txokoa

“Bertsotranpak”

Ander Lipus, Andoni Egoña...

Leitzako XXIX. Kultur Astearen baitan, larunbatean, ekainak 2, 19:00etan egingo den bertsotranparako sarrera pare bat zozketatuko ditugu gure harpidedunen artean!

19:00etan zinemara

zozketari parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ondarria izatea

Harritza eta argutza nire istorioa

easo

Logo of Easo and other sponsors.



IBARRA ▶ JAIK

# European amaitu dira Izaskungo jaiak

Alurr dantza taldeko txikienen emanaldia eta bertsolariak izan ziren, besteak beste, azken egunean

ASIER IMAZ

Atzo izan zen Ibarrako Izaskun auzoko jaien azken eguna. Hiru egun iraun dute jaiak eta euria izan da ekitaldi gehienetan. Izaskungo Festa Batzordeak atzoko, Pazko bigarren festa egunerako, goizetik antolatutako zituen ikuskizun eta elizkizunak.

10:00etan herriko txistulariek eskaini zuten auzoan barrena. 11:00etan, berriz, meza nagusia burutu zuten Izaskungo ermitan eta ordubetera hamaiketako herrikoia egin zuten. Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbioren eguneko lehen bertso saioaren ondoren, Alurr dantza taldearen emanaldia zegoen programatuta 17:00etarako. Ibarrako dantza taldeko arduradunak hasieratik kezkatu agertu

ziren, eguraldia eta lurzorua zela medio. Haurrak ikastolan jai eguna izanik, arduradunak baino irrifartsuago aurkitzen ziren, 16:30ean Izaskunen elkartu zirenean, nahiz eta euria gogotik hasi zuen unea izan. Honen ondorioz, dantza saiorako karpas iristeko belaza, lokatz bilatu zen. Haurrak bertara eramateko, baita guraso eta ikusleak ere, pasabidea zabaldu behar izan zuten errepi- de ertzetan jartzen diren hesiak lurrera botatzeko. Eguraldi txarrari haurrek algarra eta dantzaz egin zioten aurre.

Dantza saioa eta merienda- ren ondoren, bertsolarien bigarren saioa iritsi zen. Jaiak amaiera emateko, berriz, 19:00etatik 20:30era erromerian elkartu ziren atzo Izaskunera festez goatzera joan zirenak.



Alurr dantza taldeko haurrak eta ikusleak burdinezko hesien gainetik ekitaldiaren lekura iristen. ASIER IMAZ

TOLOSA ▶ DANTZA

## Euskadiko XXVII. Gipuzkoar Aurreku Txapelketan Haritz Iglesias hirugarren

Hiru tolosar aurkeztu ziren Pasaian burutu zen aurreku txapelketara

A. IMAZ

Pasaia Udalak, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrik eta Alkarkide Alkartasuna Dantzari ohiak erakundeek antolatuta, Euskadiko XXVII. Gipuzkoar Aurreku Txapelketa jokatu zen asteburuan. 12 dantzari izan ziren lehian, eta guztien artean Aritz Salamanca izan zen garaile 164,48 puntuarekin. Txapelketan hiru tolosar aurkitzen ziren, Haritz Iglesias, Iñigo Iraola eta Ion Vazquez.

Parte-hartzaile guztiek, Itsasmendi txistulari taldea laguntzearik, Ormatxulo, Eskua aldatzeko soinua, Kontrapasa eta Aurkez aurke dantzak eskaini behar izan zituzten. Epailen dantza horietan



Haritz Iglesias 3.a geratu zen Euskadiko aurreku txapelketan. HITZA

emandako puntuazioaren arabera 6 dantzari sailkatu ziren 6 sari nagusiak eskuratzeko elkarren lehian aritzeko, azken dantzarekin, zortzikoarekin hain zuten ere. Hauen artean

aurkitzen zen amaieran hirugarren amaitu zuen Haritz Iglesias tolosarra, irabazleagandik 17 puntutara. Brontzezko dominaz gain, Kutzaren trofeoaren eta 175 euroko saria jaso zuen.

iragarki laburrak ▶

**SALGAI**

**Egurra.** Sutarako egur lehorrak salgai. Etxera entregatzen da. Interesatuak deitu ondorengo telefonora: 615 75 57 62.

**GALDUTAKOAK**

**Giltzak.** Volkseagen auto baten giltzak aurkitu dira Leaburutik. Belauntzarako bidean. Interesatuak deitu: 627 36 98 87.

**Mendi bizikleta.** Tolosako udaltzaingoa, Iratxo tabernaren aurrean bildutako mendi bizikleta bat aurkitzen da. Jabea igaro dadila [udaltzaingotik](#).

VILLABONA ▶ KULTURA

## Bertso eta Ipuinen sari banaketa Gurea Aretoan

Villabonako Udalak antolatutakoa da

A. IMAZ

Villabonako Udalaren euskaraz zerbitzuak antolatutako bertso eta ipuin lehiaketako sari banaketak egin zituzten atzo Gurea aretoan. Lehiaketan Fleming, Ernio-bea eta Jesusen Bihotza ikastolek haurrek parte hartu zuten eta bertan elkartu ziren sari banaketan ere lekuko izateko. Txikienen mailan, Flemingo Ainhoa Atxaga, Mikel Fernandez eta Denis Martin izan dira irabazleak bertsoen atalean. Ipuinetan berriz, Flemingo Garazi Urkola, Jesusen Bihotzako Julen Garate eta Flemingo Leire Rico.

Gaztetxoaren artean

5. eta 6. mailan, Flemingo Laura Mosqueira eta Jesusen Bihotzeko Eneko Maiz eta Naroa Perezen bertsoak izan ziren sarituak. Ipuinetan, Flemingo Mikel Agirre, Jesusen Bihotzeko Olatz Lasa eta Adrian Sanchez Flemingoaren ipuinak saritu zituzten.

DBHko 1. eta 2. mailetan, bertsoetan saridunak Ernio-bea Irai Olazabal, 2. saria, Kepa Iguaranentzat izan zen eta 3. saria, Leire Lasarentzat. Ipuinetan berriz, 1. saria Andrea Gonzalezek eskuratu zuen; 2. sariduna Eider Urkola eta hirugarrena, Eneko Pagola.

DBHko 3. eta 4. mailetan, bertsoetan saridunak ere Ernio-bea ikasleak izan ziren. 1.; Unai Mendizabal; 2. Oihana Iguaran eta 3. Eneko Garin. Ipuinetan, berriz, hauek izan dira: Jesusen Bihotzako Eneritz Mendizabal; Ernio-bea Mikel Calvo eta hirugarrenik, Jesusen Bihotzako Sara Gomez. Beste hainbat lan ere aipatu zituzten, bereziak izateagatik.

**ZUZENKETA ▶**

Igandeko alean Txalburu eskolaren inaugurazioaren albisteak argitaratu zen. Bertan Albizturko eskola zela azaltzen zen, baina Txalburu eskola Abaltzisketakoa da.

ALEGIA ▶ KULTURA

# Herritarrekin batera, 'Ahots bidaztiak'

Olerkia eta musika jorratzen dituen ostiralean izango da, Kultur Etxean

NEREA URBIZU

Alegian maiatzean zehar antolaturiko ekitaldiekin aurrera doaz. Aste honetan antolatu duten ekitaldirik garrantzitsuenetakoa da, funtsean, musika, hitza eta olerkia lotzen dituen ekitaldia: *Ahots bidaztiak* du izena proiektuak, eta Goierriko Irati eta Ekaitz Goikoetxea anaia-arrebek bideratzen dute. Bertan, haiekin, Iñaki Mezquita alegiarra eta hainbat ahotsek hartuko dute parte. Ostiralean izango da, Kultur Etxean, 22:00etan.

Txartelak dagoeneko salgai daude Kultur Etxean bertan, eta bi euro balio dute. Alegiarrek aspaldi ari dira herritarrei zuzenduriko ekitaldi berezi hau prestatzen. Iñaki Mezquitak esan bezala, «40 bat lagun izango gara ostiralean: herritarrek egindako esfortzua eskertzeko da, baina emanaldi honetarako jarri duten gogo hori borobiltzea entzuleari dagokio. Jarritako ilusio horiek ordaina izan dezatela».

Mezquitak emanaldia deskribatzeko garaian, hitzari ematen dio nagusitasuna:



Larunbatean entsegua egin zuten Kultur Etxean. N. GARZIA

«Testuak baloreen ingurukoak dira, gizatasuna, amodioa, tratu txarrak ere... Pertsonaren ingurukoak dira, afektibitatea ere jorratzen da». Argi denez, lantzen diren gaiak ezberdinak dira, baina dena bere osotasunean har daiteke. «Olerki musikatuak, abestiak, dantzak, antzerki batzuk... Jende askok parte hartzeko emanaldia da, eta egia esan, Alegian jende kopuru polita lortu dugu».

Herritarrek dantzak eta musika ere egingo dute: Loatz

musika eskolako ikasleak izango dira, Txintxarri abesbatza-koak, dantzariak... Guztia ordu eta erdian egingo dute.

Hemendik bi astetara saioa Tolosan egingo dute, eta ordu-rako ere, tolosarrekin jarri dira harremanetan, ikastetxeekin eta hainbat dantzarirekin.

Joxe Gastesirekin, gaur

Alegian maiatzean zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte: kirola eta kultura izan dira jorra-

HITZALDIA

Ezin ahaztu Joxe Gastesi alegiarrak gaur emango duen hitzaldia; Alegiari buruz kontu-kontari 2 ariko da

tu dituztenak, eta egun hauetan zehar erakusketak ere bada. Ekainaren 1era arte Kultur Etxean Langaurre eguneko argazki zaharren proiektzioa izango da ikusgai, 19:00etatik 21:00etara. Egun berdinetan baina egun osoan zehar ikusgai, berriz, AKO aldizkariaren historia islatu dute erakusketa batean, eta Kultur Etxeko batzar aretoan dago.

Ezin ahaztu, gaur Joxe Gastesi alegiarrak emango duen hitzaldia: *Alegiari buruz kontu-kontari 2* ariko da, herritarrentzat prestaturiko hitzaldi hurbilean. 19:30etik aurrera izango da gaur entzungai. Aurreko Alegiko Kultur Astean prestatu zuen lehen hitzaldia, eta orduko harrera ona ikusita, jarraipena emango dio.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

# Gaur Jon Maiak zuzenduriko 'Apaizac obeto' bertso emanaldia izango da

XVI. mendeko euskal marinelen kondairak izango dira nagusi

N. URBIZU

*Apaizac obeto* bertso saioa eskainiko dute gaur 20:00etan, Zizurkilgo Kultur Etxean. Proiektu honetan Jon Maia dabil, eta Maiatza Saltsan egitarauaren baitan dagoen ekitaldirik deigarrienetakoa izango da. Hau izango da, hain zuzen, azken ekitaldia.

*Apaizac obeto* emanaldiak bertsoa jorratzen du, eta itsasoko istorioak kontatzen ditu.

Jon Maia bertsolaria bera izango da emanaldian, eta Kanada aldera egindako espedizioa ere gogoratuko du. Honekin batera, irudiak ere izango dira, marinela eta arrantzaleak, hain zuzen ere.

Dirudienez, XVI. eta XVII. mendean arrantzale euskaldunak Amerika aldera joaten zirenean, baleak harrapatzen, bertako jendearekin harremana izaten zuten, eta euskarak ere bere lekua bazuen. Euskal

baleazale eta bakailao arrantzaleekin harremanak zituzten indigenen tribuak ere bisitatu zituen Jon Maiak, berezko kulturak eta ahozko tradizioaren berri izateko. Honen inguruko liburua ere argitaratu zuen bizkaitarrak, *Apaizac hobeto* izenekoa.

Gaurkoan, beraz, bertsolaria, musikaria eta idazlea den Jon Maiak *Apaizac obeto* proiektua jorratuko du: bertsoak eta euskaldunen ohiturak



Jon Maia bertsolaria. HITZA

maite dituenarentzat aproposa izango da, gaur, Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean, 20:00etatik aurrera.

PILOTA ▶

# Gaur kadeteen mailan final-zortzietakoak izango dira

N. URBIZU

Gaur kadeteen lau partida izango dira Bidanian, 19:00etatik aurrera, HITZA Pilota Txapelketaren baitan. Hemendik aurrera partidak gogorragoak izango dira, jokalari hobekak daudelako.

Ezkurdia, Barandiaran, Kruz eta Urbieta I.a izango dira, eta final-zortzirenak dira gaurkoak. Datorren astean, beraz, ekainaren 5ean, final-laurdenak izango dira.

hilberria ▶

## Milagros Larrañaga Arrizabalaga

(Soziolinguistika Klusterreko Maite Egaña lankidearen ama)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin



hilberria ▶

## Joxepa Lopetegi Intxausti

ANDREA

(Hilario Lizarribaren alarguna)

ATZO hil zen, 98 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Golan bego —

Seme-alabak: M<sup>a</sup> Nieves eta Joxe Usandizaga, Jose Antonio eta Garbiñe Moraiz; bilobak: Jatsu eta Valerie, Leire eta Xabier, Xabier eta Nerea, Jon, Igor eta Valeria; birlobak: Amaia, Eñaut, Mikel, Asier, Joan, Unai, Lorena eta Larraitx; ezkon anai-arrebak: Francisca, Joxepa, Juli, Joakin eta Juanita, Joxe; zainzailea: Lucia Fernandes; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaiadak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarra SAN BARTOLOME parroki elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila eskerr.

Hilbidea: Nafarroako etorbidea 1-2 esk. oharra ▶ Gorputz laguntza famili artean egingo da.

TOLOSAN, 2007ko maiatzaren 29an





**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Joxe Gastesi alegiarra herriari buruz ariko da. *Alegiari buruz kontu kontari, 2. zatia* izango da. Kultur Etxean bilduko dira hitzaldirako, 19:30ean.

**Alegia.** Alegiko argazki taldeak antolatuta, 1978. eta 1979. urteetako Languarre eguneko argazki proiektzia izango da.

**Leitza.** *Emakumea eta kirola* kirola kanpaina izango da *Maitatu zaitetz, egin kirola* leloarekin. Informazio stand bat izango da eta dietetika eta nutrizio diplomatu batzuk interesatutako emakume guztiei hitzaldi bat emango diete.

**Tolosa.** Bihar, DBHko 3. mailako ikasleen guraso bilera, testen emaitzen berri emateko. 18:00etan, Hirukide-Eskolapiuetan.  
**Zizurkil.** *Apaizac Obeto* espedizioaren emanaldia Abulondo kultur etxean 20:00etan.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** AKO aldizkariaren historia biltzen duen erakusketa hiru egunetan zehar izango da Kultur Etxean.

**Alegia.** Jubilatuen tabernan marrazki erakusketa dago ikusgai.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

**Bihar**

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Mokolokeriak bandarekin

**TOLOSA ▶** Jende ugari bildu zen Leidorren Poxpolo eta Mokolo pailazoek Musika Bandarekin batera eginiko ikuskizunean, Musikaria astearen baitan



Poxpolo eta Mokolok eta Musika Bandak ikuskizun berezia osatu zuten. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**L**eidor aretoa leporaino bete zen herenegun arratsaldean Poxpolo ta Mokolok Tolosako Musika Bandarekin batera prestatutako ikuskizuna jarraitu ahal izateko. Txikiak zein handiek, guztiek, gozatu egin zuten Poxpoloren maltzurkeria gaixtoarekin, Mokolo beti bezain ona izaten jarraitzen duela ikusten, Oihane-ko Libururuaren, *Harriketarrren* eta *Pantera Arrosaren* doinuekin, bandako zuzendaria txorixoaren atzetik joaten ikusten, *Parabara* eta *Epo itaie* abesten, magia ziprirtinekin harritzen... Penaz gelditu ziren batzuk ikuskizunaren amaieran, baina hauek kamiseta bat eramane zuten etxera opari gisa.

Musikaria astearen barruko ekitaldia izan zen, hain zuzen ere, igandekoa eta aste osoan zehar ere izango da kontzertu ugari Musika Eskolan. Musikarekin gozatzeko aukera, beraz, Tolosan.

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**

**Joxe Mari eta Sagrario.** Urrezko bihurtu da zuen harremana. Elkarren babesean zerete gure eredu eta maite zaituztegu bihotzez. Seme-alaba eta bilobak. Segi horrela beste 50 urte!

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan  
 Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza  
 Udaletzeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak,  
 urrezko ezteiak,  
 ezkontzak, jaioberriak...



**A. ITURRIAGA** Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271  
**K. LABAKA** Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550  
 e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

**ELEKTRIZITATEA**

Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)  
 Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

**MEKANIKA**

Mekanizazioa (Erdi Maila)  
 Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)  
 (Goi Maila)

**AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra**

